



2.2 MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Munduan dauden 8 mila milioi pertsonak ez dituzte ezaugarri berak, eta ondasun eta zerbitzu guztiak ez daude pertsona guztientzat zuzenduta. Hau da, ondasun eta zerbitzu bakoitzak ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonen beharrak aseko dituzte. Horretarako, ezinbestekoa da gure zerbitzua zein motatako pertsonen zuzenduta egotea nahi dugun erabakitzea eta horien beharretara egokitzea.

Eskaintza hau, pertsona, bikote eta familiei eskainita egongo da. Bakarrik joateko asmoa badute, 18 urte eduki beharko dituzte gutxienez eta taldean joateko asmoa badute, gutxienez pertsona batek 18 urte izan beharko ditu. Eskainiko dugun zerbitzu hau, natura gustuko dutenentzat izango da batez ere. Izan ere, etxola eta zuhaitz-etxe hauek naturan bizi diren animaliaz, landarez eta abarrez inguratutik egongo dira. Kopuru txikiagoko familiak eta lagun-taldeak zuhaitz-etxeetan egon daitezke eta familia edo lagun-talde handiagoak, basoko etxoletan. Bikoteentzako eskaintza bereziak egongo dira, bestelako zerbitzuak eskainiz: masaje terapeutikoa, aroma-terapia, yoga eta pilates saioak... Familientzat, berriz, ibilbide bereziak prestatuko dira: zaldiz edo bizikletaz egitekoak, orientazio-ibilbideak, altxor-erkutuaren jolasa, tirolinak...

Gure bezeroek inguru giroa babestu edo zehatzago esanda bultzatuko dutenez, energia berriztagarria bultzatuko dugu. Horretarako, etxeko argindarra eguzki-plaken bidez lortuko da, eta etxeak berotzeko, egurrezko berogailuak erabiliiko dira. Etxeetan argi-naturala eta tenperatura mantentzeko behar diren materialak, jasangarriak izango dira, eta sortzen diren hondakinak ere, modu jasangarrian kudeatuko dira. Bertara iristeko, ibilgailu berezi bat izango du enpresak, eta aparkaleku nagusitik zuhaitz-etxoletaraino eramango ditu bezeroak.

Baita ere, ekonomia-zirkularra bultzatzeko, zuhaitz-etxeak, gosariak eta afariak Gaintzako estatutik hartuko ditu. Ostatuan goizero eta gauero, bertako baratzetako eta baserritako produktuak erabiliz sortuko dituzte menuak. Honek Gaintzako ostatuari lagunduko dio ekonomikoki eta baserritarrei ere haien produktuak erabiliiko ditugulako.